# Normalización de la Contabilidad Social



## Eka. 24 - Eka. 25 2021

### Kod. E05-21

**Mod.:**
Aurrez aurrekoa

**Edizioa**
2021

**Jarduera mota**
Uda Ikastaroa

**Data**
Eka. 24 - Eka. 25 2021

**Kokalekua**
Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

**Hizkuntzak**
Gaztelera

**Balio akademikoa**
20 ordu

### Antolakuntza Batzordea

# Azalpena

Aurten bederatzigarren edizioa egingo duen uda ikastaro honen xedea da erakundeen funtzio sozialari buruzko eztabaida eta diziplinarteko gogoeta sustatzea. Publiko zabalari zuzenduta dago, jasangarritasunari ekarpena egingo dioten erakunde eta enpresa mota berri bat sendotzeko kezkak partekatzen dituena. Aurten, ikastaroa oinarrituko da Kontabilitate Sozialaren normalizazioan.

Gaur egun gizarte osoarentzat berebiziko garrantzia duen gai bati heltzen dio: erakundeek sortutako balio sozialaren kuantifikazioa eta haren normalizazioa.

Une honetan, kontabilitate soziala sendotzeko, haren estandarizaziorantz jo behar da, erakundeen datu indibidualak kanpoko erreferenteren batekin konparatzeko, eta ez da nahikoa kontuan hartzea balio sorkuntzak urteetan zehar duen barne bilakaera.

Ikastaroan aurkeztuko dira normalizaziorako adierazleak, sektoreka gauzatzeko proposatuko direnak, hainbat esparru eta jardueratan, eta genero ikuspegia ere landuko da, generoaren araberako balio banaketaren azterketaren bidez.

Kanpoko erreferenteak zehaztea baliagarria izango da, erakundearen beraren komunikaziorako eta estrategiarako ez ezik, baita beste *stakeholder* batzuek (administrazioa, bezeroak, finantzatzaileak, langileak...) erakundeari buruzko erabaki informatuak hartu ahal izateko ere.

Adierazleek aktiboki lagunduko liekete erakundeei beren jarduera Garapen Jasangarrirako Helburuetara (GJH) bideratzen, aukera emango bailieke beren ekarpena dirutan kuantifikatzeko eta beren GAP ideal-erreala kudeatzeko. *SDG Academy*-k UPV/EHUren Kontabilitate Sozialeko MOOC saritu du (Winner 2019), uda ikastaroaren zuzendaritzak eta bertako irakasle batzuek garatutakoa.

Erakundearen errendimendua neurtzeko ikuspegi tradizionala oinarritzen da soil-soilik erakundeak akziodunentzat sortutako balioan. Beraz, funtsezko adierazleak finantzarioak dira. Ikuspegi berri batetik, jasangarritasuna har dezakegu balio kontzeptu zabalagotzat, barne hartzen duena bai *stakeholder* guztiei banatutako balioa (ez bakarrik akziodunei) bai modu integratu eta sistematiko batean erakundeak interes taldeei zuzenean eragiten dizkien ondorio ez-ekonomikoak. Balio zabalago hori, balio sozial deituko genukeena erakunde batek bere *stakeholder* guztientzat sortzen duen balio erreala islatzeagatik, lagungarria izan beharko litzateke erakundeentzat beren kudeaketan.

Bost ardatz tematiko nagusi eta zeharkakoren bidez, modu integratu eta zabal batean jorratu nahi dira balio soziala monetizatzeko eta haren normalizaziorako praktika eta teoriari loturiko gai nagusiak:

1. Kontabilitate Sozialaren normalizazioa eta informazio ez-finantzarioa.
2. Balio sozial induzitua sortzea.
3. Balio soziala ez-merkatuko jardueretan.
4. Balio sozial emozionala.
5. Stakeholder Accounting-aren eskalabilitatea.

Ardatz horiek garatuko dira publiko eta sakontze maila askotarikoentzat pentsatutako saioen bidez. Horrela, ikasleen interes, kezka eta ezagutzei erantzungo dien uda ikastaro bat eskaini nahi da. Saioek aukera emango dute aurrera egiteko inplikatutako eragile bakoitzaren eduki espezifikoetan eta interes orokorreko esperientzia inspiratzaileak partekatzeko.

Ikasleen heterogeneotasuna dela eta, Uda Ikastaro hau funtsezkoa izango da inplikatutako agenteek egun dituzten sareak sendotzeko, balio sozialaren sorkuntzari eta kuantifikazioari dagokienez. Ikastaroak erreferentziazko topagune izan nahi du erakundeen balio sozialaren sorkuntzan eta kuantifikazioan benetako interesa duten pertsona guztientzat: enpresaburuak, profesionalak, zuzendariak, aholkulariak, akademikoak, ikertzaileak, ikasleak eta, oro har, herritarrak.

## Helburuak

Kontabilitate sozialak sortutako balio soziala normalizatzeko erreferentzia gisa proposatutako adierazleak aurkeztea.

Aurrera egitea balio sozial erantsiaren indize normalizatu baterantz.

Diziplinarteko eztabaida eta gogoeta sustatzea, erakundeen eginkizun sozialari eta sortutako balio sozialari buruz, kokatuta dauden jarduera sektoreari dagokionez.

Diziplinarteko eztabaida eta gogoeta sustatzea, erakundeen eginkizun sozialari eta sortutako balio

sozialari buruz, genero ikuspegian oinarritutako banaketari dagokionez.

Ezagutza transferitzea praktika arduratsu eta jasangarrienetan aurreratuenak diren erakundeetatik EAEko enpresa txiki eta ertainetara, enpresa horiek balioaren sorkuntza eta banaketa orekatua optimizatu dezaten.

Network-a sortzea jasangarritasunaz eta balio sozialaz kezkatuta dauden enpresa eta erakundeen artean.

Egungo paradigma ekonomikoa birplanteatzea eta enpresaren funtzio sozialean oinarritutako kontabilitatea garatzen laguntzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

AURKILAN Investigación y Promoción Economía Social y Solidaria

GEAccounting

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — ECRI Ethics in Finance & Social Value — Deusto Business School Universidad de Deusto

CIRIEC españa

aeca Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas

Donostia Sustainability Forum

BASQUE GREEN DEAL

# Programa

## 2021-06-24

| | |
|---|---|
| 09:15 - 09:30 | Registro |
| 09:30 - 10:00 | Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena<br>**Maite Ruiz Roqueñi** UPV/EHU - Profesora<br>**José Luis Retolaza Avalos** EBEN ESPAÑA - Presidente |
| 10:00 - 11:00 | “Hacia la normalización de la contabilidad social y la información no financiera“<br>**José Luis Retolaza Avalos** Universidad de Deusto - Profesor<br>**José Luis Lizcano** AECA - Director Gerente |
| 11:00 - 11:30 | Atsedena |
| 11:30 - 13:00 | “Valor Social Inducido“<br>**Teresa Laespada Martínez** Diputación Foral de Bizkaia - Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad<br>**Javier Fernández Valdivielso** Fundación Caja Navarra - Director General |
| 13:00 - 14:30 | “Valor Social de no mercado“<br>**Tomás Merino Rodríguez de Tembleque** Cooperativas agroalimentarias Castilla La Mancha<br>**Jesús Vázquez** Baskonia-alaves group - International and institutional general manager |
| 14:30 - 16:00 | Pausa comida |
| 16:00 - 17:30 | Taller. Certificación de la Contabilidad Social |
| 16:00 - 17:30 | Taller: Investigación. Hacia un índice normalizado de valor social añadido |

## 2021-06-25

| | |
|---|---|
| 09:30 - 09:45 | “Marco histórico y conceptual de la contabilidad social“<br>**Leandro Cañibano** AECA - Presidente |
| 09:45 - 11:00 | “Valor Social Emocional“<br>**Maite Ruiz Roqueñi** UPV/EHU - Profesora<br>**Patxi Vera Donazar** Unión de Cooperativas Agroalimentarias de Navarra (UCAN) - Director |
| 11:00 - 11:30 | Atsedena |
| 11:30 - 13:30 | “Escalabilidad de la Stakeholder Accounting“<br>**Ramón Bernal Uribarrena** Funko - Presidente<br>**Jokin Díaz Arsuaga** Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco - Director de Economía Social |

| | |
|---|---|
| 13:30 - 14:00 | Itxiera |
| | **Leire San Jose Ruiz de Aguirre** UPV/EHU - Profesora |

# Zuzendaritza



### Maite Ruiz Roqueñi

UPV/EHU, Profesora

---

Doctora en Ciencias Económicas y Empresariales, es profesora Titular de la Universidad del País Vasco en el área de conocimiento: Comercialización e Investigación de Mercados. Imparte clases de Dirección Comercial y Comunicación Comercial tanto en cursos de grado como de postgrado. Codirectora del Master en Marketing y Dirección Comercial de la Universidad del País Vasco. Su actividad investigadora, se desarrolla en el grupo de investigación ECRI (Ethics in Finance & Social Value), en temas vinculados a la sostenibilidad y el valor social en el marco de la Stakeholder Theory. Es autora de numerosas publicaciones tanto a nivel nacional como internacional. Esta actividad se compagina con trabajos de asesoramiento a empresas e instituciones.



### José Luis Retolaza Avalos

Universidad de Deusto

---

Profesor de Economía de la Deusto Business School, especializado en Contabilidad Social. Doctor en Economía, Licenciado Filosofía, y en Psicología Clínica e Industrial. Master (DEA) en Finanzas y Experto en Métodos Avanzados de Estadística Aplicada. Participa en los Grupos de Investigación HUME (Universidad de Deusto), ECRI (UPV/EHU) y MGCF (Sorbona-París 1). Presidente de Eben (European Business Ethics Network) España, Director Científico de GEAccounting (Global Economic Accounting), Vicepresidente de Aurkilan, y miembro del Comité Científico y Editorial de CIRIEC. Cuenta con más de 50 publicaciones indexadas, y ha participado en múltiples Congresos, Seminarios, Workshops y Conferencias. Con anterioridad a la etapa universitaria ha sido director de varias empresas de consultoría (TECA, OPE, Bultz-Lan), Director de Formación y Empleo de Cáritas y Presidente de REAS Euskalherria.

# Irakasleak



### Ramón Bernal Uribarrena

Fundación Lantegi Batuak

Director Administrativo Financiero de Fundación Lantegi Batuak y desde 2015 Presidente de FUNKO (Fundazioen Euskal Konfederazioa). Licenciado en CC Económicas por la UPV y MBA por el Instituto de Empresa.



### Leandro Cañibano



### Jokin Díaz Arsuaga



### Javier Fernández Valdivielso



**Teresa Laespada Martínez**

En la actualidad es Diputada Foral de Empleo, Inclusión social e Igualdad en la Diputación Foral de Bizkaia. Doctora en Ciencias Políticas y Sociología por la Universidad de Deusto. Es profesora Titular del Departamento de Psicología Social en la Facultad de Psicología y Educación de la U. Deusto. En la actualidad se encuentra en excedencia forzosa por ocupar cargo público. Hasta su excedencia ha sido directora del Instituto Deusto de Drogodependencias, directora del máster de drogodependencias y otras adicciones, además de docente en grados y postgrados. Ha sido Investigadora principal (IP) en la línea de investigación en drogodependencias y otras adicciones de la UD y pertenece al equipo de investigación reconocido por el Gobierno Vasco "calidad de vida e inclusión social. Tiene más de un centenar de publicaciones sobre jóvenes, alcohol, consumos de drogas, etc. Ha sido parlamentaria vasca (2009-2012) y miembro de la Ejecutiva del Partido (PSE-EE) desde 2010.



**José Luis Lizcano**



**Tomás Merino Rodríguez de Tembleque**

Fundación CooperActiva



**Jesús Vázquez**



**Patxi Vera Donazar**

UCAN

---



**Leire San Jose Ruiz de Aguirre**

UPV/EHU

---

Leire San-Jose Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle titularra da Bilbon eta Visiting Research Fellow Huddersfield Business School (Erresuma Batuan). Berak ECRI lideratzen du, etika finantzetan eta balio sozialaren inguruko Ikerketa taldea den. Aurretik Irakasle Gonbidauta izan zen Loyola Chicago Unibertsitatean eta John Boatright katedradunarekin lan egin zuen, baita Darden Business School Edward Freeman katedradunarekin lan egin zuen. Bere argitalpen garrantzitsuenak diruzaintzaren kudeaketa, balio soziala eta stakeholder teoriaren ingurukoak dira.

# Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE | 2021-06-24 ARTE |
|---|---|
| OROKORRA | 77,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA | 65,00 EUR |
| MATRIKULA EXENTZIOA | 54,00 EUR |
| GONBIDATUAK | 0 EUR |

# Kokalekua

## Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia